2. Salvo acuerdo en contrario de las partes, cualquiera de ellas podrá modificar o ampliar su demanda o contestación durante el curso de las actuaciones arbitrales, a menos que los árbitros lo consideren improcedente por razón de la demora con que se hubiere hecho.

### **Artículo 30. Forma de las actuaciones arbitrales.**

1. Salvo acuerdo en contrario de las partes, los árbitros decidirán si han de celebrarse audiencias para la presentación de alegaciones, la práctica de pruebas y la emisión de conclusiones, o si las actuaciones se sustanciarán solamente por escrito.

No obstante, a menos que las partes hubiesen convenido que no se celebren audiencias, los árbitros las señalarán, en la fase apropiada de las actuaciones, si cualquiera de las partes lo solicitara.

2. Las partes serán citadas a todas las audiencias con suficiente antelación y podrán intervenir en ellas directamente o por medio de sus representantes.

3. De todas las alegaciones escritas, documentos y demás instrumentos que una parte aporte a los árbitros se dará traslado a la otra parte.

Asimismo, se pondrán a disposición de las partes los documentos, dictámenes periciales y otros instrumentos probatorios en que los árbitros puedan fundar su decisión.

demandatzaileak oinarri hartzen dituen gertakariak, gatazkaren izaera eta gorabeherak, eta aurkezten dituen uziak alegatu behar ditu, eta demandan aurkeztutakoari erantzun ahal izango dio demandatuak.

Alderdiek, alegazioak aurkezten dituztenean, egoki iritzitako dokumentu guztiak erantsi ahal izango dituzte, baita aurkeztu edo proposatutako dituzten dokumentuen zein beste frogen aipamena egin ere.

2. Alderdiek kontrakorik adostu ezik, horietako edozeinek aldatu edo zabaldu dezake bere demanda edo erantzuna arbitrajeko jarduketek dirauten artean, arbitroek, aldaketa edo zabalkuntza berandu egitearren, bidegabekotzat jotzen ez badute.

### **30. artikulua. Arbitrajeko jarduketetarako moduak.**

1. Alderdiek kontrakorik adostu ezik, arbitroek erabakiko dute entzunaldiak egin behar diren alegazioak aurkezteko, frogak burutzeko eta ondorioak aditzera emateko, edo jarduketak idatziz bakarrik hezurmamitu behar diren.

Hala ere, alderdiek entzunaldirik ez-egitea hitzartu ez badute, arbitroek entzunaldi izendatuko dituzte, jarduketan aldi egokian, alderdietakoren batek hala eskatzen badu.

2. Nahiko denborarekin jarriko zaie hitzordua alderdiei entzunaldi guztietarako, eta zuzenean edo beren ordezkarien bidez parte hartu ahal izango dute entzunaldietan.

3. Alderdi batak arbitroei emandako alegazio idatzi, dokumentu eta gainerako agiri guztiak helaraziko zaizkio beste alderdiari.

Era berean, alderdien eskueran jarriko dira arbitroek beren ebazpena oinarritzeko erabilitako frogatzako dokumentuak, peritutzostenak eta gainerako agiriak.

### **Artículo 31. Falta de comparecencia de las partes.**

2 Salvo acuerdo en contrario de las partes, cuando, sin alegar causa suficiente a juicio de los árbitros:

- a) El demandante no presente su demanda en plazo, los árbitros darán por terminadas las actuaciones, a menos que, oído el demandado, éste manifieste su voluntad de ejercitar alguna pretensión.
- b) El demandado no presente su contestación en plazo, los árbitros continuarán las actuaciones, sin que esa omisión se considere como allanamiento o admisión de los hechos alegados por el demandante.
- c) Una de las partes no comparezca a una audiencia o no presente pruebas, los árbitros podrán continuar las actuaciones y dictar el laudo con fundamento en las pruebas de que dispongan.

### **Artículo 32. Nombramiento de peritos por los árbitros.**

1. Salvo acuerdo en contrario de las partes, los árbitros podrán nombrar, de oficio o a instancia de parte, uno o más peritos para que dictaminen sobre materias concretas y requerir a cualquiera de las partes para que facilite al perito toda la información pertinente, le presente para su inspección todos los documentos u objetos pertinentes o le proporcione acceso a ellos.
2. Salvo acuerdo en contrario de las partes, cuando una parte lo solicite o cuando los árbitros lo consideren necesario, todo perito, después de la presentación de su dictamen, deberá participar en una audiencia en la que los árbitros y las partes, por sí o asistidas de peritos, podrán interrogarle.
3. Lo previsto en los apartados precedentes se entiende sin perjuicio de la facultad de las partes, salvo acuerdo en contrario, de aportar dictámenes periciales por peritos

### **231. artikulua. Alderdiak ez agertzea.**

Baldin eta, alderdiek kontrakorik adostu ezik, arbitroen iritziz arrazoi nahikorik alegatu gabe:

- a) Demandatzaileak bere demanda epean aurkeztu ez badu, arbitroek amaitutzat emango dituzte jarduketak, demandatuari entzutean, horrek uziren bat egikaritzeko borondatea agertzen duenean izan ezik.
- b) Demandatuak bere erantzuna epean aurkeztu ez badu, arbitroek jarduketekin jarraituko dute, eta ez-egite horrek ez du esan nahi amore eman duenik ez eta demandatzaileak alegatutako gertakariak onartzen dituenik ere.
- c) Alderdietakoren bat entzunaldira agertzen ez bada edo frogarik aurkeztu ez badu, arbitroek jarduketekin jarraitu ahal izango dute eta laudoa eman ere bai, eskura dituzten frogetan oinarrituta.

### **32. artikulua. Arbitroek perituak izendatzea.**

1. Alderdiek kontrakorik adostu ezik, arbitroek peritu bat edo gehiago izendatu ahal izango dituzte ofizioz edo alderdi batek eskatuta, gai zehatz batzuei buruz irizpena eman dezaten; eta alderdietako edozeini errekerimendua egin ahal izango diote bidezko informazio guztia perituari emateko, bidezko dokumentu edo objektu guztiak perituari ikuskatzeko aurkezteko, edo perituari horietara iristeko aukera emateko.
2. Alderdiek kontrakorik adostu ezik, alderdi batek eskatzen duenean zein arbitroek beharrezko irizten diotenean, peritu orok, bere irizpena eman eta gero, entzunaldi batean parte hartu beharko du, arbitroek eta alderdiek, beren kabuz edo perituen laguntzaz, galderak egin diezazkieten.
3. Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa ez doa alderdiok askatasunez izendatutako perituen peritu-txostenak aurkezteko duten ahalmenaren kontra, bestelako akordiorik



libremente designados.

### **Artículo 33. Asistencia judicial para la práctica de pruebas.**

1. Los árbitros o cualquiera de las partes con su aprobación podrán solicitar del tribunal competente asistencia para la práctica de pruebas, de conformidad con las normas que le sean aplicables sobre medios de prueba.

Esta asistencia podrá consistir en la práctica de la prueba ante el tribunal competente o en la adopción por éste de las concretas medidas necesarias para que la prueba pueda ser practicada ante los árbitros.

2. Si así se le solicitare, el tribunal practicará la prueba bajo su exclusiva dirección.

En otro caso, el tribunal se limitará a acordar las medidas pertinentes.

En ambos supuestos el tribunal entregará al solicitante testimonio de las actuaciones.

## **TÍTULO VI**

### **Del pronunciamiento del laudo y de la terminación de las actuaciones**

#### **Artículo 34. Normas aplicables al fondo de la controversia.**

1. Los árbitros sólo decidirán en equidad si las partes les han autorizado expresamente para ello.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, cuando el arbitraje sea internacional, los árbitros decidirán la controversia de conformidad con las normas jurídicas elegidas por las partes.

Se entenderá que toda indicación del derecho u ordenamiento jurídico de un Estado determinado se refiere, a menos que se exprese lo contrario, al derecho sustantivo de ese Estado y no a sus normas de conflicto de leyes.

Si las partes no indican las normas jurídicas aplicables, los árbitros aplicarán las que estimen apropiadas.

3. En todo caso, los árbitros decidirán con arreglo a las estipulaciones del contrato y tendrán en cuenta los usos aplicables.

ez badago behintzat.

### **33. artikulua. Frogak burutzeko laguntza judiziala.**

1. Arbitroek edo alderdietakoren batek haien onarpenarekin frogak burutzeko laguntza eskatu ahal izango diote eskumena duen auzitegiari, frogabideei buruz aplikagarri diren arauekin bat etorriz.

Laguntza hori, batetik, eskumena duen auzitegian frogak egitea izan daiteke, edo bestetik, auzitegi horrek beharrezko neurri zehatzak hartzea frogak arbitroen aurrean egiteko.

2. Auzitegiari hala eskatzen bazaio, auzitegiak berak bakarrik zuzenduta burutuko du froga.

Bestela, auzitegia bidezko neurriak erabakitsera mugatuko da.

Aurreko kasu bietan, auzitegiak jarduketan lekukotasuna emango dio eskatzaileari.

## **VI. TITULUA**

### **Laudoa ematea, eta jarduketak amaitzea**

#### **34. artikulua. Gatazkaren mamiari aplikatzeko arauak.**

1. Arbitroek ekitatez ebatzi ahal izateko, alderdiek horretarako berariazko baimena eman behar diete.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren aurka jarri gabe, arbitrajea nazioartekoa denean, alderdiek aukeratutako arau juridikoen arabera ebatziko dute gatazka arbitroek.

Estatu zehatzen bateko zuzenbidea edo ordenamendu juridikoa aipatzen den bakoitzean, kontrakorik adierazten ez bada, estatu horretako funtsezko zuzenbideari buruz ari da, eta ez lege-gatazkako bere arauari buruz.

Alderdiek zein arau juridiko aplikatu adierazten ez badute, arbitroek berek egokitzen jotakoak aplikatuko dituzte.

3. Nolanahi ere, kontratuko hizbaketen arabera ebatziko dute arbitroek, eta usadio aplikagarriak kontuan hartuta.

Artículo 35. Adopción de decisiones colegiadas.

1. Cuando haya más de un árbitro, toda decisión se adoptará por mayoría, salvo que las partes hubieren dispuesto otra cosa.

Si no hubiere mayoría, la decisión será tomada por el presidente.

2. Salvo acuerdo de las partes o de los árbitros en contrario, el presidente podrá decidir por sí solo cuestiones de ordenación, tramitación e impulso del procedimiento.

Artículo 36. Laudo por acuerdo de las partes.

1. Si durante las actuaciones arbitrales las partes llegan a un acuerdo que ponga fin total o parcialmente a la controversia, los árbitros darán por terminadas las actuaciones con respecto a los puntos acordados y, si ambas partes lo solicitan y los árbitros no aprecian motivo para oponerse, harán constar ese acuerdo en forma de laudo en los términos convenidos por las partes.

2. El laudo se dictará con arreglo a lo dispuesto en el artículo siguiente y tendrá la misma eficacia que cualquier otro laudo dictado sobre el fondo del litigio.

Artículo 37. Plazo, forma, contenido y notificación del laudo.

1. Salvo acuerdo en contrario de las partes, los árbitros decidirán la controversia en un solo laudo o en tantos laudos parciales como estimen necesarios.

2. Si las partes no hubieren dispuesto otra cosa, los árbitros deberán decidir la controversia dentro de los seis meses siguientes a la fecha de presentación de la contestación a que se refiere el artículo 29 o de expiración del plazo para presentarla.

Salvo acuerdo en contrario de las partes, este plazo podrá ser prorrogado por los árbitros, por un plazo no superior a dos meses, mediante decisión motivada.

La expiración del plazo sin que se haya

35. artikulua. Erabakiak taldean hartzea.

1. Arbitro bat baino gehiago dagoenean, erabaki guztiak gehiengoz hartuko dira, alderdiek besterik xedatu ez badute.

Gehiengorik ez badago, lehendakariak hartuko du erabakia.

2. Alderdiek edo arbitroek kontrakorik adostu ezik, lehendakariak berak bakarrik erabaki ditzake prozedura antolatuta, izapidetu eta bultzatzeko gaiak.

36. artikulua. Laudoa, alderdiak ados jarrita.

1. Arbitrajeko jarduketek dirauten artean alderdiek ados jarri eta gatazka osorik edo zati batean amaitzen badute, adostutako puntuei buruzko jarduketak amaitutzat joko dituzte arbitroek; eta, bi alderdiek eskatu eta arbitroek aurka jartzeko arrazoirik ikusten ez badute, adostasun hori laudoaren itxurarekin jasoko dute, alderdiek hitzartutako moduan.

2. Laudo hori hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera emango da, eta auziaren mamiari buruz emandako beste edozein laudoren eraginkortasun berbera izango du.

37. artikulua. Laudoaren epea, forma, edukia eta jakinarazpena.

1. Alderdiek kontrakorik adostu ezik, laudo bakar batean edo beharrezkotzat jotako haina laudo zatituetan ebatziko dute gatazka arbitroek.

2. Alderdiek besterik xedatu ez badute, 29. artikuluan aipatutako erantzuna aurkezten den egunaren edo erantzuna aurkezteko epea amaitzeko egunaren hurrengo sei hilabeteen barruan ebatzi behar dute gatazka arbitroek.

Alderdiek kontrakorik adostu ezik, arbitroek luzatu egin dezakete epe hori arrazoitutako ebazpen baten bidez, baina ez bi hilabete baino denbora gehiagorako.

Behin betiko laudorik eman gabe amaitzen

dictado laudo definitivo determinará la terminación de las actuaciones arbitrales y el cese de los árbitros.

No obstante, no afectará a la eficacia del convenio arbitral, sin perjuicio de la responsabilidad en que hayan podido incurrir los árbitros.

3. Todo laudo deberá constar por escrito y ser firmado por los árbitros, quienes podrán expresar su parecer discrepante.

Cuando haya más de un árbitro, bastarán las firmas de la 2mayoría de los miembros del colegio arbitral o sólo la de su presidente, siempre que se manifiesten las razones de la falta de una o más firmas.

A los efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, se entenderá que el laudo consta por escrito cuando de su contenido y firmas quede constancia y sean accesibles para su ulterior consulta en soporte electrónico, óptico o de otro tipo.

4. El laudo deberá ser motivado, a menos que las partes hayan convenido otra cosa o que se trate de un laudo pronunciado en los términos convenidos por las partes conforme al artículo anterior.

5. Constarán en el laudo la fecha en que ha sido dictado y el lugar del arbitraje, determinado de conformidad con el apartado 1 del artículo 26.

El laudo se considerará dictado en ese lugar.

6. Con sujeción a lo acordado por las partes, los árbitros se pronunciarán en el laudo sobre las costas del arbitraje, que incluirán los honorarios y gastos de los árbitros y, en su caso, los honorarios y gastos de los defensores o representantes de las partes, el coste del servicio prestado por la institución administradora del arbitraje y los demás gastos originados en el procedimiento arbitral.

7. Los árbitros notificarán el laudo a las partes en la forma y en el plazo que éstas hayan acordado o, en su defecto, mediante entrega a cada una de ellas de un ejemplar

bada epea, horrekin batera amaituko dira arbitrajeko jarduketak, eta arbitroek ere kargua utziko dute.

Hala ere, horrek ez dio ukituko arbitraje-hitzarmenaren eraginkortasunari, eta arbitroek izan dezaten erantzukizuna ere ez da aldatuko.

3. Laudo oro idatziz jasoko da, arbitroek izenpetuta; arbitroek, beren iritzia aurkakoa bada, adierazita utz dezakete.

Arbitro bat baino gehiago dagoenean, aski izango dira arbitro-taldearen kideen gehiengoaren edo bakarrik lehendakariaren sinadurak, sinadura bat edo gehiago falta izateko arrazoiak azaltzen badira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, laudoa idatziz jasota dagoela ulertuko da, baldin eta bere edukia eta sinadurak erasota utzi badira eta euskarri elektronikoz, optikoz zein beste moduren batera gerora horiek kontsultatzera iritsi ahal badaiteke.

24. Laudoa arrazoitua izan behar da, alderdiek besterik hitzartu ez badute edo aurreko artikularekin bat etorri alderdiek hitzartutako moduan emandako laudoa ez bada.

5. Laudoan erasota utzi behar dira zein egunetan eta zein tokitan eman den, azken hori 26. artikuluko 1. paragrafoarekin bat etorri zehaztuta.

Laudoa toki horretan emandakotzat joko da.

6. Alderdiek adostutakoari lotuta, arbitroek laudoan ebatziko dituzte bai arbitrajeko kostuak, tartean arbitroen zerbitzu-sariak eta gastuak eta, halakorik bada, alderdien defendatzaileen edo ordezkarien zerbitzu-sariak eta gastuak, arbitrajea administratu duen instituzioak emandako zerbitzuaren gastuak, eta arbitraje-prozeduran sortutako gainerako gastuak.

7. Alderdiek adostutako forman eta epean jakinaraziko diete laudoa arbitroek alderdiei; edo, horrela ez bada, ale bana emango diote alderdi bakoitzari, artikuluko

firmado de conformidad con lo dispuesto en el apartado 3, dentro del mismo plazo establecido en el apartado 2.

8. El laudo podrá ser protocolizado notarialmente.

Cualquiera de las partes, a su costa, podrá instar de los árbitros, antes de la notificación, que el laudo sea protocolizado.

Artículo 38. Terminación de las actuaciones.

1. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo anterior, sobre notificación y, en su caso, protocolización del laudo, y en el artículo siguiente, sobre su corrección, aclaración y complemento, las actuaciones arbitrales terminarán y los árbitros cesarán en sus funciones con el laudo definitivo.

2. Los árbitros también ordenarán la terminación de las actuaciones cuando:

a) El demandante desista de su demanda, a menos que el demandado se oponga a ello y los árbitros le reconozcan un interés legítimo en obtener una solución definitiva del litigio.

b) Las partes acuerden dar por terminadas las actuaciones.

c) Los árbitros comprueben que la prosecución de las actuaciones resulta innecesaria o imposible.

3. Transcurrido el plazo que las partes hayan señalado a este fin o, en su defecto, el de dos meses desde la terminación de las actuaciones, cesará la obligación de los árbitros de conservar la documentación del procedimiento.

Dentro de ese plazo, cualquiera de las partes podrá solicitar a los árbitros que le remitan los documentos presentados por ella.

Los árbitros accederán a la solicitud siempre que no atente contra el secreto de la deliberación arbitral y que el solicitante asuma los gastos correspondientes al envío,

honetako 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorri izenpetuta, eta 2. paragrafoan ezarritako epearen barruan.

8. Laudoa notaritzako protokoloan jaso ahal izango da.

Alderdietako edozeinek, jakinarazpena jaso aurretik, laudoa bere kontura protokoloan jasotzeko eskatu ahal izango die arbitroei.

38. artikulua. Jarduketak amaitzea.

1. Aurreko artikuluan laudoaren jakinarazpenari buruz eta, hala denean, protokoloan jasotzeari buruz xedatutakoaren aurka jarri gabe, eta hurrengo artikuluan laudoa zuzentzeari, argitzeari eta osatzeari buruz xedatutakoaren aurka jarri gabe, behin betiko laudoa ematen denean amaituko dira arbitrajeko jarduketak, eta arbitroek ere beren karguak utziko dituzte.

2. Arbitroek jarduketak amaitzea aginduko dute:

a) Demandatzaileak bere demandan atzera egiten duenean, demandatuak horren aurka egiten ez badu eta demandatuari auziaren behin betiko konponketa lortzeko bidezko interesa onartzen ez badiote arbitroek.

b) Alderdiek jarduketak amaitutzat ematea adosten dutenean.

c) Arbitroek jarduketekin jarraitzea beharrezkoa ez dela edo ezinezkoa dela egiaztatzen dutenean.

3. Alderdiek helburu horretarako adierazitako epea igaro eta gero, edo, ezer adierazi ezik, jarduketak amaitzen direnetik bi hilabeteko epea igaro eta gero, amaitu egingo da arbitroek prozedurako agiriak gordetzeko duten betebeharra.

Epe horren barruan, alderdietako edozeinek berak aurkeztutako dokumentuak berari bihurtzeko eskatu ahal izango die arbitroei.

Arbitroek onartu egingo dute eskabidea, arbitroen eztabaidaren isilekotasuna arriskuan jartzen ez badu, eta eskatzaileak, egotekotan, bidalketaren gastuak beregain

en su caso.

### **Artículo 39. Corrección, aclaración y complemento del laudo.**

1. Dentro de los 10 días siguientes a la notificación del laudo, salvo que las partes hayan acordado otro plazo, cualquiera de ellas podrá, con notificación a la otra, solicitar a los árbitros:

- a) La corrección de cualquier error de cálculo, de copia, tipográfico o de naturaleza similar.
- b) La aclaración de un punto o de una parte concreta del laudo.
- c) El complemento del laudo respecto de peticiones formuladas y no resueltas en él.

2. Previa audiencia de las demás partes, los árbitros resolverán sobre las solicitudes de corrección de errores y de aclaración en el plazo de 10 días, y sobre la solicitud de complemento en el plazo de 20 días.

3. Dentro de los 10 días siguientes a la fecha del laudo, los árbitros podrán proceder de oficio a la corrección de errores a que se refiere el párrafo a) del apartado 1.

4. Lo dispuesto en el artículo 37 se aplicará a las resoluciones arbitrales sobre corrección, aclaración y complemento del laudo.

5. Cuando el arbitraje sea internacional, los plazos de 10 y 20 días establecidos en los apartados anteriores serán plazos de uno y dos meses, respectivamente.

## **TÍTULO VII**

### **De la anulación y de la revisión del laudo**

#### **Artículo 40. Acción de anulación del laudo.**

Contra un laudo definitivo podrá ejercitarse la acción de anulación en los términos previstos en este título.

#### **Artículo 41. Motivos.**

1. El laudo sólo podrá ser anulado cuando la parte que solicita la anulación alegue y pruebe:

hartzen baditu.

### **39. artikulua. Laudoa zuzendu, argitu eta osatzea.**

1. Laudoaren jakinarazpenaren hurrengo 10 egunen barruan, alderdiek beste eperen bat adostu badute izan ezik, alderdietako edozeinek, beste alderdiari jakinarazi eta gero, hau eskatu ahal izango die arbitroei:

a) Kalkuluko, kopiako, tipografiako edo antzeko beste edozein akats zuzentzeko.

2b) Laudoaren puntu edo parte zehatzen bat argitzeko.

c) Aurkeztutako eskakizunei buruz laudoa osatzea, laudo horretan eskakizunok erabaki ez badira.

2. Beste alderdiei entzun ondoren, arbitroek 10 eguneko epean erabakiko dituzte akatsak zuzentzeko eta puntuak argitzeko egin zaizkien eskabideak, eta 20 eguneko epean erabakiko dituzte laudoa osatzekoak.

3. Laudoaren egunaren hurrengo 10 egunen barruan arbitroek ofizioz zuzendu ditzakete 1. paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako akatsak.

4. Goiko 37. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Laudoa zuzendu, argitu eta osatzeko emandako arbitroen ebazpenei.

5. Arbitrajea nazioartekoa denean, aurreko paragrafoetan ezarritako 10 eta 20 eguneko epeak, hurrenez hurren, hilabetekoak eta bi hilabetekoak izango dira.

## **VII. TITULUA**

### **Laudoa deuseztatzea eta berrikustea**

#### **40. artikulua. Laudoa deuseztatzeko akzioa.**

Behin betiko laudoaren aurka, titulu honetan aurreikusitako moduan egikaritu daiteke hura deuseztatzeko akzioa.

#### **41. artikulua. Arrazoiak.**

1. Laudoa deuseztatzeko modu bakarra, deuseztatzea eskatzen duen alderdiak hauek alegatu eta frogatzea da:

a) Que el convenio arbitral no existe o no es válido.

b) Que no ha sido debidamente notificada de la designación de un árbitro o de las actuaciones arbitrales o no ha podido, por cualquier otra razón, hacer valer sus derechos.

c) Que los árbitros han resuelto sobre cuestiones no sometidas a su decisión.

d) Que la designación de los árbitros o el procedimiento arbitral no se han ajustado al acuerdo entre las partes, salvo que dicho acuerdo fuera contrario a una norma imperativa de esta Ley, o, a falta de dicho acuerdo, que no se han ajustado a esta ley.

e) Que los árbitros han resuelto sobre cuestiones no susceptibles de arbitraje.

f) Que el laudo es contrario al orden público.

22. Los motivos contenidos en los párrafos b), e) y f) del apartado anterior podrán ser apreciados por el tribunal que conozca de la acción de anulación de oficio o a instancia del Ministerio Fiscal en relación con los intereses cuya defensa le está legalmente atribuida.

3. En los casos previstos en los párrafos c) y e) del apartado 1, la anulación afectará sólo a los pronunciamientos del laudo sobre cuestiones no sometidas a decisión de los árbitros o no susceptibles de arbitraje, siempre que puedan separarse de las demás.

4. La acción de anulación del laudo habrá de ejercitarse dentro de los dos meses siguientes a su notificación o, en caso de que se haya solicitado corrección, aclaración o complemento del laudo, desde la notificación de la resolución sobre esta solicitud, o desde la expiración del plazo para adoptarla.

#### **Artículo 42. Procedimiento.**

1. La acción de anulación se sustanciará por los cauces del juicio verbal.

a) Arbitraje-hitzarmenik ez dagoela edo ez duela balio.

b) Arbitroren baten izendapena edo arbitrajeko jarduketak ez zaizkiola behar bezala jakinarazi, edo, beste edozein arrazoi tarteko, bere eskubideez baliatzerik ez duela izan.

c) Arbitroek beren erabakipean jarri gabeko gaiei buruz erabaki dutela.

d) Arbitroen izendapena edo arbitraje-prozedura ez direla lotu alderdiek adostutakoari, akordio hori lege honetako aginduzko arauen baten kontrakoa denean izan ezik; edo, akordio hori egon ezik, izendapena edo prozedura ez direla lotu lege honetara.

e) Arbitrajepean jar ezin daitezkeen gaiei buruz ebatzi dutela arbitroek.

f) Laudoa ordena publikoaren kontrakoa dela.

2. Deuseztatzeko akzioaz arduratzen den auzitegiak balioetsiko ditu aurreko paragrafoko b), e) eta f) idatz-zatietan jasotako arrazoiak, ofizioz edo fiskaltzak berari legez egotzitako defentsako interesei buruz egindako eskariz.

3. Goiko 1. paragrafoko c) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, arbitroen erabakipean jarri gabeko edo arbitrajepean jarri ezin diren gaiei buruzko laudoko ebazpenei baino ez die eragingo deuseztapenak, baldin eta beste arazoetatik banandu badaitezke.

4. Laudoa deuseztatzeko akzioa jakinarazpenaren hurrengo bi hilabeteen barruan egikaritu beharko da; aldiz, laudao zuzendu, argitu edo osatzea eskatu bada, eskabide 2horren gaineko ebazpenaren jakinarazpenetik edo ebazpena emateko epea amaitzen denetik zenbatuta.

#### **42. artikulua. Prozedura.**

1. Deuseztatzeko akzioa hitzezko epaiketaren bidetik hezurmamituko da.

No obstante, la demanda deberá presentarse conforme a lo establecido en el artículo 399 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, acompañada de los documentos justificativos del convenio arbitral y del laudo, y, en su caso, contendrá la proposición de los medios de prueba cuya práctica interese el actor.

De la demanda se dará traslado al demandado, para que conteste en el plazo de 20 días.

En la contestación deberá el demandado proponer los medios de prueba de que intente valerse.

Contestada la demanda o transcurrido el correspondiente plazo, se citará a las partes a la vista, en la que el actor podrá proponer la práctica de prueba en relación con lo alegado por el demandado en su contestación.

2. Frente a la sentencia que se dicte no cabrá recurso alguno.

#### **Artículo 43. Cosa juzgada y revisión de laudos firmes.**

El laudo firme produce efectos de cosa juzgada y frente a él sólo cabrá solicitar la revisión conforme a lo establecido en la Ley de Enjuiciamiento Civil para las sentencias firmes.

### **TÍTULO VIII**

#### **De la ejecución forzosa del laudo**

##### **Artículo 44. Normas aplicables.**

La ejecución forzosa de los laudos se regirá por lo dispuesto en la Ley de Enjuiciamiento Civil y en este título.

##### **Artículo 45. Suspensión, sobreseimiento y reanudación de la ejecución en caso de ejercicio de la acción de anulación del laudo.**

1. El laudo es ejecutable aun cuando contra él se haya ejercitado acción de anulación.

No obstante, en ese caso el ejecutado podrá solicitar al tribunal competente la suspensión de la ejecución, siempre que ofrezca caución por el valor de la condena

Hala ere, Prozedura Zibileko Legeko 399. artikuluan ezarritakoarekin bat aurkeztu beharko da demanda, arbitraje-hitzarmena eta laudoa justifikatzeko dokumentuekin batera; eta, kasuen arabera, demanda-jartzaileak burutu nahi dituen frogabideen gaineko proposamena jasoko du.

Demandatuari demanda helaraziko zaio, 20 eguneko epean erantzun dezan.

Demandatuak erantzunean proposatu beharko ditu baliatu nahi dituen frogabideak.

Demandari erantzun ondoren edo dagokion epea igaro eta gero, alderdiei bistarako dei egingo zaie, eta demandatuak bere erantzunean alegatutakoari dagozkion frogak burutzea proposa dezake demanda-jartzaileak bista horretan.

2. Emandako epaiaren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik jarri.

#### **43. artikulua. Gauza epaitua eta laudo irmoak berrikustea.**

Laudo irmoak gauza epaituaren ondorioak sortzen ditu, eta haren aurka berrikustea baino ezin daiteke eskatu Prozedura Zibileko Legean epai irmoetarako ezarritakoarekin bat etorritz.

### **VIII. TITULUA**

#### **Laudoa nahitaez betearaztea**

##### **44. atala.– Arau aplikagarriak.**

Laudoak nahitaez betearazteko, Prozedura Zibileko Legean eta titulu honetan xedatutakoa izango da arau.

##### **45. artikulua. Laudoa deuseztatzeko akzioa egikaritzen denean nahitaez betearaztea eten, largetsi eta abiaraztea.**

1. Laudoa betearaztekoa da, bere aurka deuseztatzeko akzioa egikaritu arren.

Hala ere, alderdi betearaziak kasu horretan betearaztea eteteko eskabidea egin ahal izango dio eskumena duen auzitegiari, baldin eta kondenaren balioaren kausioa eta

más los daños y perjuicios que pudieren derivarse de la demora en la ejecución del laudo.

La caución podrá constituirse en cualquiera de las formas previstas en el párrafo segundo del apartado 3 del artículo 529 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

Presentada la solicitud de suspensión, el tribunal, tras oír al ejecutante, resolverá sobre la caución.

Contra esta resolución no cabrá recurso alguno.

2. Se alzará la suspensión y se ordenará que continúe la ejecución cuando conste al tribunal la desestimación de la acción de anulación, sin perjuicio del derecho del ejecutante a solicitar, en su caso, indemnización de los daños y perjuicios causados por la demora en la ejecución, a través de los cauces ordenados en los artículos 712 y siguientes de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

3. Se alzará la ejecución, con los efectos previstos en los artículos 533 y 534 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, cuando conste al tribunal que ha sido estimada la acción de anulación.

Si la anulación afectase sólo a las cuestiones a que se refiere el apartado 3 del artículo 41 y subsistiesen otros pronunciamientos del laudo, se considerará estimación parcial, a los efectos previstos en el apartado 2 del artículo 533 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

## **TÍTULO IX**

### **Del exequátur de laudos extranjeros**

#### **Artículo 46. Carácter extranjero del laudo. Normas aplicables.**

1. Se entiende por laudo extranjero el pronunciado fuera del territorio español.
2. El exequátur de laudos extranjeros se registrará por el Convenio sobre reconocimiento y ejecución de las sentencias arbitrales extranjeras, hecho en Nueva York, el 10 de junio de 1958, sin

laudoa betearazten gertatutako atzerapenetik sor daitezen kalte-galeren kauziora eskaintzen baditu.

Prozedura Zibileko Legeko 529. artikuluko 3. paragrafoko bigarren idatz-zatian aurreikusitako edozein formatan eratu ahal izango da kauziora.

Betearaztea eteteko eskabidea aurkeztu ondoren, auzitegiak betearazleari entzun eta gero erabakiko du kauziora buruz.

Erabaki horren aurka ez dago errekurtsorik jartzerik.

2. Auzitegiak jakiten badu deuseztatzeko akzioa ezetsi egin dela, jaso egingo da etetea, eta betearazteak jarraitzeko agindua emango da; betearazleak eskubidea izango du betearazten izandako atzerapenak eragindako kalte-galeren kalte-ordainak eskatzeko, halakorik egon bada, Prozedura Zibileko Legeko 712. artikuluan eta hurrengoetan agindutako bideak erabiliz.

3. Auzitegiak jakiten badu deuseztatzeko akzioa onartu egin dela, jaso egingo da betearaztea, Prozedura Zibileko Legeko 533 eta 534. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako.

2Deuseztatzeak 41. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako gaiei bakarrik eragiten badie eta laudoaren gainerako ebazpenek indarrean jarraitzen badute, baiespen partzialtzat hartuko da, Prozedura Zibileko Legeko 533. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako.

## **IX. TITULUA**

### **Atzerriko laudoen exequaturra**

#### **46. artikulua. Laudoa atzerrikoa izatea. Arau aplikagarriak.**

1. Atzerriko laudotzat jotzen da Espainiako lurraldetik kanpo emandakoa.
2. Atzerriko laudoen exequaturrerako, atzerriko epaiak onartu eta betearazteko 1958ko ekainaren 10ean New Yorken egindako Hitzarmena izango da arau, betearaztea agintzeko onuragarriagoak



perjuicio de lo dispuesto en otros convenios internacionales más favorables a su concesión, y se sustanciará según el procedimiento establecido en el ordenamiento procesal civil para el de sentencias dictadas por tribunales extranjeros.

#### **Disposición adicional única. Arbitrajes de consumo.**

Esta ley será de aplicación supletoria al arbitraje a que se refiere la Ley 26/1984, de 19 de julio, general de defensa de consumidores y usuarios, que en sus normas de desarrollo podrá establecer la decisión en equidad, salvo que las partes opten expresamente por el arbitraje en derecho.

#### **Disposición transitoria única. Régimen transitorio.**

1. En los casos en que con anterioridad a la entrada en vigor de esta ley el demandado hubiere recibido el requerimiento de someter la controversia a arbitraje o se hubiere iniciado el procedimiento arbitral, éste se regirá por lo dispuesto en la Ley 36/1988, de 5 de diciembre, de Arbitraje.

No obstante, se aplicarán en todo caso las normas de esta ley relativas al convenio arbitral y a sus efectos.

2. A los laudos dictados con posterioridad a la entrada en vigor de esta ley les serán de aplicación las normas de ésta relativas a anulación y revisión.

3. Los procedimientos de ejecución forzosa de laudos y de exequátur de laudos extranjeros que se encontraren pendientes a la entrada en vigor de esta ley se seguirán sustanciando por lo dispuesto en la Ley 36/1988, de 5 de diciembre, de Arbitraje.

#### **Disposición derogatoria única. Derogaciones.**

Queda derogada la Ley 36/1988, de 5 de diciembre, de Arbitraje.

#### **Disposición final primera. Modificación de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.**

diren nazioarteko beste hitzarmen batzuetan xedatutakoaren aurka jarri gabe; eta atzerriko auzitegiak emandako epaietarako prozesu zibileko ordenamenduan ezarritako prozeduraren arabera hezurmamituko da.

#### **Xedapen gehigarri bakarra. Kontsumoko arbitrajeak.**

Lege hau osagarri aplikatuko zaio Bezeroen eta Erabiltzaileen Defentsarako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorrean aipatutako arbitrajeari, eta horrek garapeneko arauetan ekitate-ebazpena ezar dezake, alderdiek zuzenbidearen arabera arbitrajea berariaz aukeratzen ez badute.

#### **Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.**

1. Lege hau indarrean sartu aurretik gatazka arbitrajera jartzeko errekerimendua jaso badu demandatuak edo arbitraje-prozedura hasita badago, Arbitrajeko abenduaren 5eko 36/1988 Legean xedatutakoaz arautuko da prozedura hori.

Aitzitik, lege honetan arbitraje-hitzarmenari eta bere ondorioei buruz emandako arauak aplikatuko egingo dira nolana ere.

2. Lege hau indarrean sartu ondoren emandako laudoei lege honetako arauak aplikatuko zaizkie deuseztatze eta berrikusteari buruz.

3. Lege hau indarrean sartzean amaitu gabe dauden laudoak nahitaez betearazteko prozedurak eta atzerriko laudoen exequaturrak Arbitrajeko abenduaren 5eko 36/1988 Legean xedatutakoaz hezurmamituko dira.

#### **Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzeak.**

Indargabetuta gelditzen da Arbitrajeko abenduaren 5eko 36/1988 Legea.

#### **Azken xedapenetatik lehenengoa. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzea.**

1. El número 2.o del apartado 2 del artículo 517, queda redactado en los siguientes términos:

«2.o Los laudos o resoluciones arbitrales.»

2. Se añade un nuevo párrafo al número 1.o del apartado 1 del artículo 550 con la siguiente redacción:

«Cuando el título sea un laudo, se acompañarán, además, el convenio arbitral y los documentos acreditativos de la notificación de aquél a las partes.»

3. Se adiciona un número 4.o al apartado 1 del artículo 559 con esta redacción:

«4.o Si el título ejecutivo fuera un laudo arbitral no protocolizado notarialmente, la falta de autenticidad de éste.» Disposición final segunda. Habilidadación competencial.

Esta ley se dicta al amparo de la competencia exclusiva del Estado en materia de legislación mercantil, procesal y civil, establecida en el artículo 149.1.6.a y 8.a de la Constitución.

#### **Disposición final tercera. Entrada en vigor.**

La presente ley entrará en vigor a los tres meses de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

1. Lege horretako 517. artikuluko 2. paragrafoko 2. zenbakia honela idatzita geldituko da:

“2. Laudoak edo arbitroen ebazpenak”.

2. Legeko 550. artikuluko 1. paragrafoko 1. zenbakiari pasarte berri bat gehitzen zaio honela idatzita:

“Titulua laudo bat denean, arbitraje-hitzarmena eta alderdiei laudoa jakinarazi zaiela egiaztatzeko dokumentuak ere erantsi egin behar dira.”

3. Legeko 559. artikuluko 1. paragrafoari 4. zenbakia gehitzen zaio honela idatzita:

“4. Betearazteko titulua notaritzako protokoloan jaso gabeko laudo bat bada, titulu hori kautoa ez izatea.” Azken xedapenetatik bigarrena. Eskumen-gaikuntza.

Lege hau Konstituzioko 149.1.6 eta 8. artikuluan Estatuari merkataritzako, prozesuko eta zibileko legediei buruz ezarritako eskumen eskusiboaren babespean eman da.

#### **Azken xedapenetatik hirugarrena. Indarrean sartzea.**

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hiru hilabetera sartuko da indarrean.